



ESTADISTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
*Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



**ERAIKUNTZARI ETA
ETXEBIZITZARI BURUZKO
ESTADISTIKA (EEEE)**

Emaitza nagusiak

2021ko 1. hiruhilekoa

*Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Berriz ere, 2021eko lehen hiruhilekoan, gora egin du obra handiko lizentzien kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoan, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai urtetik urterako terminoetan.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE), arabera 2021eko lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek obra handiko 857 lizentzia eman zituzten. Emaidza horiek 2020ko laugarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino handiagoak dira, 55 lizentzia gehiago eman baitira, hau da, % 6,9ko igoera termino erlatiboetan. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduerak gorakada izan du: 146 lizentzia gehiago onartu dira, hau da, % 20,5 gehiago.

Obra handiko lizentzien ia erdiak Bizkaian eman dira (% 49,6), 425 guztira. Araban 229 lizentzia eman dira, guztien % 26,7. Gainerako 203 lizentziak, guztizkoaren % 23,7, Gipuzkoari dagozkio.

Arabian eta, batez ere, Gipuzkoan, gora egin du obra handiko lizentzien kopuruak 2020ko laugarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean. Bizkaian, aldiz, jaitsiera txiki bat izan da, % 3,6koa (16 lizentzia gutxiago). Gipuzkoan 45 lizentzia gehiago eman dira (% 28,5eko igoera), eta Arabakoa, berriz, apalagoa da: 26 lizentzia gehiago (termino erlatiboetan, % 12,8ko igoera).

Urtetik urterako emaitzei dagokienez, hiru lurraldeek emaitza positiboak izan dituzte, eta Araban izan da igoera handiena. Araban 89 lizentzia gehiago eman dira, termino absolutuetan, 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta; hau da, % 63,6ko igoera erlatiboa izan da. Gipuzkoan, 39 lizentzia gehiago eman dira urte batetik bestera, eta aldi horretan % 23,8ko igoera erlatiboa izan da. Bizkaian, emandako lizentzien kopuruak igoera apalagoa izan du: 18 lizentzia eman dira kopuru absolutuetan, hau da, % 4,4ko igoera izan da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Ohikoa denez, 2021eko lehen hiruhilekoan emandako lizentzia gehienak birgaitze-obrei lotuta jarraitzen dute (% 83,7).

2021eko lehen hiruhilekoan, **emandako lizentzia-moten** araberako banaketan aurreko hiruhilekoetako joera berari eutsi zaio, eta argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehazki, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 83,7 dira, lizentzien % 13,8 eraikin berrietarako eta % 2,6 eraispenetarako. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 717 lizentzia (2020ko laugarren hiruhilekoan baino 25 gehiago, % 3,6ko igoerarekin), eraikuntza berrietarako 118 lizentzia (aurreko hiruhilekoan baino 27 gehiago eta % 29,7ko igoera erlatiboa adierazten dutenak) eta eraisteko 22 lizentzia, laugarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino 3 gehiago (% 15,8).



Eraikuntza berriko etxebizitzetarako lizentziak eta birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztiekiko duten zatiak ñabardura txikiak ditu aztertzen den lurralde historikoaren arabera. Araban eta Gipuzkoan eraikuntza berriak pisu erlatibo handixeagoa du Bizkaian baino: emandako obra handiko lizentzia guztien % 18,3 eta % 15,8, hurrenez hurren; Bizkaian, berriz, % 10,4. Birgaitzeko obra handiko lizentzietan dagokienez: Bizkaian, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 87,8 dira; Gipuzkoan, % 80,3; eta Araban, % 79,0.

1. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2021eko 1. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko		
	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %	
EAE	Guztira	857	100,0	55	6,9	146	20,5
	Eraikuntza berria	118	13,8	27	29,7	22	22,9
	Birgaitzea	717	83,7	25	3,6	121	20,3
	Eraispena	22	2,6	3	15,8	3	15,8
Araba	Guztira	229	100,0	26	12,8	89	63,6
	Eraikuntza berria	42	18,3	20	90,9	11	35,5
	Birgaitzea	181	79,0	6	3,4	76	72,4
	Eraispena	6	2,6	0	0,0	2	50,0
Bizkaia	Guztira	425	100,0	-16	-3,6	18	4,4
	Eraikuntza berria	44	10,4	-3	-6,4	6	15,8
	Birgaitzea	373	87,8	-15	-3,9	9	2,5
	Eraispena	8	1,9	2	33,3	3	60,0
Gipuzkoa	Guztira	203	100,0	45	28,5	39	23,8
	Eraikuntza berria	32	15,8	10	45,5	5	18,5
	Birgaitzea	163	80,3	34	26,4	36	28,3
	Eraispena	8	3,9	1	14,3	-2	-20,0

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

1. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa



2020ko laugarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean, Araban eraikuntza berriko lizentzien kopuruak gorakada nabarmena izan du (% 90,9, 20 lizentzia gehiagori dagokiena); hala ere, Bizkaiak % 6,4ko beherakada izan du datu horretan (3 lizentzia gutxiago), eta Gipuzkoak gora egin du aurreko hiruhilekoetako datuekin alderatuta (% 45,5 handiagoa, aurreko hiruhilekoan baino 10 lizentzia gehiago). Birgaitzeko obren kasuan, Bizkaian soilik egin du behera lizentzien kopuruak (-% 3,9); Gipuzkoan nabarmen egin du gora (% 26,4), eta Araban ia aurreko hiruhilekoko baldintza berberetan mantendu da: +% 3,4.

Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, EAE osoan, obra berriko lizentzien kopuruak % 22,9 egin du gora, obra handiko 22 lizentzia gehiago eman baitira 2020ko lehen hiruhilekoan baino. Hiru lurraldeek goranzko pisu erlatiboa dute, baina Arabako gorakada da nabarmenena: % 35,5 termino erlatiboetan, 11 lizentzia gehiago eman baitira termino absolutuetan. Gipuzkoan 5 lizentzia gehiago eman dira (% 18,5eko igoera), eta Bizkaian, berriz, urtetik urterako igoera apalagoa izan da termino erlatiboetan: 6 lizentzia gehiago (% 15,8).

Era berean, EAEn birgaitzeko lizentzien kopuruak gora egin du 2020ko lehen hiruhilekoaren eta 2021eko lehen hiruhilekoaren artean (% 20,3). Igoera hori hiru lurraldeek ere partekatzen dute; hala ere, Araban igoera handiagoa izan da, % 72,4koa, 76 lizentzian; Gipuzkoan % 28,3ko igoera izan da (36 lizentzia gehiago). Bizkaian % 2,5eko igoera izan da (9 lizentzia gehiagori dagokie).

2021eko lehen hiruhilekoan, urtetik urterako aldakuntza metatuek berriz ere jaitsiera orokorra erakusten dute emandako lizentzien kopuruan, batez ere birgaitzeko emandako lizentzien kopuruak izandako beherakadaren ondorioz.

Urteko datu metatu horiek 2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehen hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak hartzen dituzte kontuan, aurreko urteetako hiruhileko berdinetako urteko metatuarekin alderatuta (2019ko bigarren hiruhilekotik 2020ko lehenera). Kopuru absolutuetan, 138 lizentzia gutxiago izan dira, aurreko aldiaren baino % 4,4 gutxiago. Jaitsiera handienak, kopuru horietan, birgaitzeko lizentzietan erregistratu dira nagusiki (% 4,8 jaitsi dira: 128 lizentzia gutxiago). Eraikuntza berrikoak % 3,4 jaitsi dira, eta 14 lizentzia eman dira. Eraispen-obra eskusiboetarako emandako lizentzien igoera txikiak (4 lizentzia gehiago eman dira eta % 6,5eko igoera izan da kopuru erlatiboetan) ez ditu inola ere konpentsatzen aurreko galerak.

2021eko lehen hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaerak alde esanguratsuak ditu, bai termino absolutuetan, bai erlatiboetan, hiru lurraldeen artean.

Urtetik urtera lurralde historikoen arabera metatutako datuen analisiak datu negatiboak ematen ditu, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan; aldiz, emandako lizentzien kopuruak apur bat gora egin du Araban:



Arabako % 4,8ko igoera izan da (emandako 36 lizentzia gehiago) azken urtean metatutako lizentzien kopuruan, urteko aldi berarekin alderatuta. Behera egin dute eraikuntza berriko etxebizitzaren lizentziek (-% 8,1, 11 lizentzia gutxiagori dagokiena); gora egin dute, modu absolutuan, birgaitzeko lizentziek (% 6,4, 39 lizentziari dagozkie), eta gora egin dute, halaber, eraisteko emandako lizentziek (% 47,1).

2. Taula Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urteko urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2020ko 2. Hiruhilekotik 2021eko 1. Hiruhilekora		Metatua 2019ko 2. Hiruhilekotik 2020ko 1. Hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Euskadi	Guztira	3.031	100,0	3.169	100,0	-138	-4,4
	Eraikuntza berria	399	13,2	413	13,0	-14	-3,4
	Birgaitzea	2.566	84,7	2.694	85,0	-128	-4,8
	Eraispena	66	2,2	62	2,0	4	6,5
Araba	Guztira	793	100,0	757	100,0	36	4,8
	Eraikuntza berria	124	15,6	135	17,8	-11	-8,1
	Birgaitzea	644	81,2	605	79,9	39	6,4
	Eraispena	25	3,2	17	2,2	8	47,1
Bizkaia	Guztira	1.546	100,0	1.706	100,0	-160	-9,4
	Eraikuntza berria	167	10,8	163	9,6	4	2,5
	Birgaitzea	1.357	87,8	1.520	89,1	-163	-10,7
	Eraispena	22	1,4	23	1,3	-1	-4,3
Gipuzkoa	Guztira	692	100,0	706	100,0	-14	-2,0
	Eraikuntza berria	108	15,6	115	16,3	-7	-6,1
	Birgaitzea	565	81,6	569	80,6	-4	-0,7
	Eraispena	19	2,7	22	3,1	-3	-13,6

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

2. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa bertikalak)




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa



Gipuzkoan, 14 lizentzia gutxiago eman dira, eta horrek obretarako lizentzien urte arteko kopuru metatuan % 2,0ko beherakada egon dela esan nahi du. Balio erlatiboetan, beherakada handiena (-% 13,6: 3 lizentzia) eraisteko lizentzietatik dagokie. Birgaitzeko lizentziak % 0,7 baino ez dira jaitsi (4 lizentzia balio absolutuetan); era berean, eraikuntza berrikoak % 6,1 murriztu dira, 7 lizentziatan.

Bizkaian izan da jaitzierarik handiena, kopuru absolutuetan eta erlatiboetan, hiru lurraldeetan (-% 9,4, 160 lizentziari dagokienez). Obra motaren arabera, eraikuntza berriko lizentziak % 2,5 igo dira urtetik urtera (4 lizentzia gehiago), birgaitzeko lizentziak % 10,7 jaitsi dira, 163 lizentzia gutxiago eman direlako eta eraisteko lizentzia bat gutxiago eman delako (-% 4,3).

3. Grafikoa Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. 1998-2021



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2021eko lehen hiruhilekoan mantendu egin da bizitegi-erabilerarako obra handiko lizentzien kopurua, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta, hala ere, gora egin du urte arteko terminoetan. Bizitegi-erabilerarako ez direnek gora egin dute, bai hiruhilekoko konparazioan, bai urte arteko konparazioan.

2021eko lehen hiruhilekoan, obra handiko 835 lizentzia eman ziren, eraikuntza berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (629, hau da, guztizkoaren % 75,3) **bizitegi-erabilerarako** proiektuekin lotu ziren, eta gainerako 206 lizentziak, berriz, guztizkoaren % 24,7, bizitegi-erabilerarako ez ziren proiektuekin¹.

2021eko lehen hiruhilekoan emandako **bizitegi-erabilerarako ez** diren obra-lizentzien erabilera sektorialari dagokionez, ohi bezala, zerbitzu-erabilerarako lizentziak dira nagusi (guztizkoaren % 70,9). Industriaren eta energiaren sektoreran edo lehen sektoreran bideratutakoak % 18,0 eta % 11,2 dira, hurrenez hurren.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2020ko laugarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean, emandako lizentzien kopuruak % 6,6 egin du gora (52 lizentzia gehiago). Igoera horrek lizentzien bizitegi-erabilerarako ez diren erabilerei soilik eragiten die, % 33,8ko igoera izan baitu (52 lizentzia); bizitegi-erabilera, berriz, aurreko hiruhilekoko kopuru berberetan mantentzen da:

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen emaitza, 2020ko laugarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean, batez ere zerbitzuen sektorean 48 lizentzia gehiago ematearekin lotzen da (% 49,0), kopuru absolutuetan lehen sektorean % 43,8ko igoera (7 lizentzia) eta bigarren sektorean aurreko hiruhilekoarekin alderatuta izandako lizentzia-kopuruaren beherakada gaindituz (-% 7,5, 3 lizentzia gutxiagori dagokiena).

2020ko lehen hiruhilekoaren eta 2021ekoaren arteko **urteko** alderaketa positiboa da, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (% 15,0 82 lizentziei dagokie), bai bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez: 61 lizentzia gehiago (% 42,1).

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik kanpo geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat izapidetu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla (bizitegirakoak eta bizitegirakoak ez direnak).



3. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

OBRA HANDIKO LITZENTZIAK	2021eko 1. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
Guztira	835	100,0	52	6,6	143	20,7
Bizitegia	629	75,3	0	0,0	82	15,0
Bizitegiaz bestelakoa	206	24,7	52	33,8	61	42,1
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	23	11,2	7	43,8	17	283,3
• Industria eta energia	37	18,0	-3	-7,5	2	5,7
• Zerbitzuak	146	70,9	48	49,0	42	40,4

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

4. Grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak emateko barne-dinamikari dagokionez, 2020ko lehen hiruhilekoaren eta 2021eko aldi beraren artean, industriaren eta energiaren sektoreko zifrek ia bere horretan jarraitzen dute (2 lizentziari dagokienez, % 5,7), zerbitzuen sektorean gorakada nabarmena erregistratu da (42 lizentziari dagokienez, % 40,4), eta, termino erlatiboetan, lehen sektoreko 17 lizentzietan dagokienez, % 283,3ko igoera nabarmena izan da.

Urtetik urtera metatutako kopuruei dagokienez, berriz ere EAEn emandako lizentzien kopuruak behera egin duela ikusten da, bi erabileraren motei lotuta, bizitegi-erabilerarako nahiz bestelako erabileretarako.

2020ko bigarren hiruhilekotik 2021eko lehen hiruhilekora arte metatutako urtetik urterako zifrak aurreko urteetako hiruhileko berberei dagozkienekin alderatzean, bizitegi-erabilerako lizentzien kopuruan (-% 4,5) eta bizitegi-erabilerarako ez direnetan (-% 4,7) datuek beherakada egon dela erakusten dute.

4. Taula Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urteetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatuta 2020ko 2. Hiruhilekotik 2021eko 1. Hiruhilekora		Metatuta 2019ko 2. Hiruhilekotik 2020ko 1. Hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Guztira	2.965	100,0	3.107	100,0	-142	-4,6
Bizitegia	2.320	78,2	2.430	78,2	-110	-4,5
Bizitegiaz bestelakoa	645	21,8	677	21,8	-32	-4,7
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	70	10,9	50	7,4	20	40,0
• Industria eta energia	130	20,2	187	27,6	-57	-30,5
• Zerbitzuak	445	69,0	440	65,0	5	1,1

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako emandako lizentziei dagokienez, 2021eko lehen hiruhilekoko urteko datu metatuek okertze bat erakusten dute industriaren eta energiaren sektorean (-% 30,5), lehen sektoreak izandako igoerarekin (% 40,0) eta hirugarren sektoreko edo zerbitzuetako datuekin alderatuta (% 1,1).

5. Grafikoa Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

2021eko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, behera egin du obra handiko lizentziek eragindako etxebizitzaren kopuruak. Urteetik urterako aldaketa, ordea, positiboa da, birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren hazkundera dela eta.

2021eko lehen hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako emandako obra handiko 629 lizentziek 1.175 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak dakartzate berekin (aurreko hiruhilekoan baino 80 gutxiago). Etxebizitza horietatik 781 eraikuntza berriko jarduketekin zerikusia dute (guztien % 66,5 dira), eta gainerako 394 etxebizitzak birgaitze-prozesuekin lotuta daude².

Zehaztu behar da inplikaturako eraikuntza berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiruhilekoan, sustapenen-kopuruaren arabera. Hori kontuan hartuz gero, 2020ko laugarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruak behera egin duela hautematen da (-% 11,9). Urte arteko kopurua aztertuz gero, eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspena aurreko urteko hiruhileko berean erregistratutako kopuru berean mantentzen da.

Birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren ikuspegitik, aldi baterako azterketak balio positiboak ematen ditu bi kasuetan: 25 etxebizitza gehiago daude aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 6,8) eta 116 gehiago (% 41,7) duela hamabi hilabeterekin alderatuta.

Aurreko hiruhilekoan jasotako datuekin alderatuta, Araban gorakada nabarmena izan da eraikuntza berriko jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruan. Gipuzkoak eta Bizkaiak, aldiz, nabarmen egin dute behera esku-hartze mota horretarako aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan.

2021eko lehen hiruhilekoan, **Arabian** 447 etxebizitza zeuden aurreikusitako jarduketei lotuta, horietatik % 83,9 eraikuntza berrikoak (375 etxebizitza). Lurralde horretan, eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 177,8), eta zertxobait jaitsi da 2020ko hiruhileko bereko datuarekin alderatuta (-% 5,8).

Birgaitze-jarduketekin lotutako etxebizitzaren kopuari dagokionez (72 etxebizitza), horien bolumenak okerrera egin du 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta (-% 5,3), eta bikoiztu egin du aurreikuspena urte arteko terminoetan (% 100).

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-erakinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Eragindako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira aintzat soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da egindako zatiketa edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza-kopurua).



Bizkaian, bestalde, 396 etxebizitzarekin lotutako jarduketak gauzatu dira 2021eko lehen hiruhilekoan. Aurreikuspenen arabera, 213 etxebizitza berri eraikiko dira, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta nahiko ikuspegi ezkorrekin (-% 43,7ko aldaketa, 165 etxebizitza gutxiago). Urte arteko datuei dagokienez, ordea, % 6,0ko igoera txiki bat izan du, 12 etxebizitza gehiagorekin.

Birgaitzeko ekintzari dagokionez, beherakada txiki bat gertatu da: 6 etxebizitza (-% 3,2) aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 52 etxebizitzako hobekuntza (% 39,7) duela urtebeteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Gipuzkoak, azkenik, 332 etxebizitzatarako jarduketak eskaintzen ditu, horietatik 193 oin berrikoak. 2020ko laugarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean aurreikusitako etxebizitzen kopuruak nabarmen egin du behera eraikuntza berriari lotutako ekintzetan (-% 48,3: 180 etxebizitza gutxiago), eta birgaitzeko jarduketetan aurreikusitako etxebizitzen kopuruak gora egin du (% 33,7, 35 etxebizitza gehiago). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, eraikuntza berriko etxebizitzen kopurua egonkortu egin da (% 6, 11 etxebizitzari dagozkie) eta birgaitzeko etxebizitzen kopuruak gora egin du (% 25,2: 28 etxebizitza gehiago).

5. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2021eko 1. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Ald. %	Kopurua	Ald. %
EAE	Guztira	1.175	100,0	-80	-6,4	116	11,0
	Eraikuntza berria	781	66,5	-105	-11,9	0	0,0
	Birgaitzea	394	33,5	25	6,8	116	41,7
Araba	Guztira	447	100,0	236	111,8	13	3,0
	Eraikuntza berria	375	83,9	240	177,8	-23	-5,8
	Birgaitzea	72	16,1	-4	-5,3	36	100,0
Bizkaia	Guztira	396	100,0	-171	-30,2	64	19,3
	Eraikuntza berria	213	53,8	-165	-43,7	12	6,0
	Birgaitzea	183	46,2	-6	-3,2	52	39,7
Gipuzkoa	Guztira	332	100,0	-145	-30,4	39	13,3
	Eraikuntza berria	193	58,1	-180	-48,3	11	6,0
	Birgaitzea	139	41,9	35	33,7	28	25,2



6. Grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1 hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

Urtetik urterako kopuru metatuei dagokienez, EAEn nabarmen egin du behera eraikuntza berriko jarduketetan aurreikusitako etxebizitzaren kopurua, eta, antzeko termino erlatiboetan, gora egin du birgaitzeko prozesuetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak.

Aurreikusitako etxebizitzaren hiruhilekoko kopuruak izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Horrela jardunez gero, 2021eko lehen hiruhilekora arte bizitegi-erabileran metatutako urteko jarduerak 4.313 etxebizitzari eragiten diela guztira aurreikusten da (eraikuntza berriko 3.001 etxebizitza eta birgaitzeko 1.312 etxebizitza). Horrek 2020ko lehen hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta % 11ko jaitsiera egon dela esan nahi du (533 etxebizitza gutxiago). Beherakada horrek alderantziz eragiten die, termino erlatiboetan, eraikuntza berriko jarduketei (-% 19,7) eta birgaitzearekin lotutakoiei (% 18,5).

6. Taula Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urtetik urterako aldakuntza absolutua eta portzentajekoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2020ko 2. Hiruhilekotik 2021eko 1. Hiruhilekora		Metatua 2019ko 2. Hiruhilekotik 2020ko 1. Hiruhilekora		Urteko metatuaaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Ald. %
Euskadi	Guztira	4.313	100,0	4.846	100,0	-533	-11,0
	Eraikuntza berria	3.001	69,6	3.739	77,2	-738	-19,7
	Birgaitzea	1.312	30,4	1.107	22,8	205	18,5
Araba	Guztira	1.039	100,0	1.233	100,0	-194	-15,7
	Eraikuntza berria	749	72,1	1.000	81,1	-251	-25,1
	Birgaitzea	290	27,9	233	18,9	57	24,5
Bizkaia	Guztira	1.866	100,0	1.887	100,0	-21	-1,1
	Eraikuntza berria	1.292	69,2	1.369	72,5	-77	-5,6
	Birgaitzea	574	30,8	518	27,5	56	10,8
Gipuzkoa	Guztira	1.408	100,0	1.726	100,0	-318	-18,4
	Eraikuntza berria	960	68,2	1.370	79,4	-410	-29,9
	Birgaitzea	448	31,8	356	20,6	92	25,8

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa



7. Grafikoa Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak
(Balio absolutuak eta ehuneko bertikalak)



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2021eko 1. hiruhilekoa

Hiru lurraldeek behera egin dute, termino desberdinetan bada ere, etxebizitzaren arloan aurreikusitako jarduketei dagokienez. Guztiek beherakada nabarmenagoak izan dituzte etxebizitza berriari dagokionez, eta antzeko igoerak ehuneko puntuetan birgaitze-jarduerari dagokienez.

Etxebizitza berrien eraikuntzari dagokionez, Araban jarduerak behera egin du (-% 25,1, 251 etxebizitzari dagokionez), Bizkaiak % 5,6ko jaitsiera izan du (77 etxebizitza gutxiago) eta Gipuzkoak daturik txarrenak eman ditu (-% 29,9, 410 etxebizitza gutxiago).

Birgaitzeko jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak gora egin du hiru lurraldeetan; hala, Gipuzkoan % 25,8 igo dira, eta Araban eta Bizkaian % 24,5 eta % 10,8, hurrenez hurren.



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAeko 251 udalek igortzen dute hiler. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, eta udalak etxebizitza babestuak sustatze aldera eskuratutako lurzoruari buruzkoa. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den jakitea da. Udalek emandako obra handiko lizentzietatik abiatuta, obraren ezaugarri nagusiak (eraikuntza berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak ezagutu nahi dira.

Definizioak:

Obra handiko lizentziak Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, eraikuntza berriko edozein eraikuntza-mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan ala ez. Baimenaren helburua lizentzia-eskaera hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin bat datorrela egiaztatzea da

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

- a. **Eraikuntza berriko obra:** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldeztatik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra:** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldeztatik eraitspen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin behar da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso behar da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra: lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak honako hauek dira:

- Eraikinak handitzea, horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz.
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispin-obra: Eraikin bat guztiz edo partzialki eraistea da



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2021eko 1. hiruhilekoa

Emaiza nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK.....	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	14
TAULEN AURKIBIDEA	16
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	16

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa	3
2. Taula	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa.....	8
4. Taula	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
5. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoa	11
6. Taula	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	12

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa	3
2. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. Grafikoa	Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. 1998-2021	6
4. Grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. hiruhilekoa	8
5. Grafikoa	Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
6. Grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1 hiruhilekoa	12
7. Grafikoa	Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2021eko 1. Hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

Informazio gehiagorako:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estadistika Organo Espezifikoren zerbitzu Zuzendaritza

/Donostia / San Sebastián kalea, 101010 Vitoria-Gasteiz

Telegono zenbakia: +34-945-01 69 61; Fax: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/estadisticas-vivienda

www.euskadi.eus/estadisticas-territoriales

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/es/

E-maila: estadísticas-vivienda@euskadi.eus